

# Terminologia-lana euskaraz: urrets berriak

(Terminological work: new steps)

DÍAZ DE LEZANA, Araceli

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
Eusko Jaurlaritzza  
Donostia kalea 1  
01010 Vitoria/Gasteiz  
A-Lezana@ej-gv.es

BIBLID [1137-1951 (2004), 12; 99-109]

Sarrera eguna: 2003.06.30  
Onarpen eguna: 2004.05.10

## E

uska Biziberritzeko Plan Nagusiak, euskararen corpus-ari dagokionez, terminologia-lanaren plangintza egitea agintzen du. Horri men eginez, eta euskarazko terminologia-lana antolatu, koordinatu eta bideratze aldera, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hainbat ekimen garrantzitsu burutu du: Euskal Terminologia Banku Publikoa sortu du batetik, eta, bestetik, terminologia-alorrean erabakiak hartzeko eskumena duen Terminologia Batzordea eratu du. Batzordeak "2003-2005 Jarduketa-plana" onartu berri du.

**Giltza hitzak:**

Lehentasunak. Koordinazioa. Irizpideak. Terminoak. Jarraipena.

## E

l Plan General de Promoción del Uso del Euskera establece, en lo que respecta al corpus del euskera, la necesidad de llevar a cabo la planificación del trabajo terminológico. Así, con el fin de acometer lo establecido por el Plan, y con el fin de organizar, coordinar y encauzar el trabajo terminológico, la Viceconsejería de Política Lingüística ha llevado a cabo importantes iniciativas, tales como la creación del Banco Terminológico Público Vasco y la constitución de la Comisión de Terminología. Dicha Comisión acaba de aprobar el "Plan de Actuación 2003-2004".

**Palabras clave:**

Prioridades. Coordinación. Criterios. Términos. Seguimiento.

## Z

e Plan Général de Promotion de l'Usage de l'Euskera établi, en ce qui concerne le corpus de l'euskera, la nécessité de mener à bien la planification du travail terminologique. Ainsi, afin d'entreprendre ce qui était établi par le Plan, et afin d'organiser, coordonner et orienter le travail terminologique, le sous-ministère de la Politique Linguistique a réalisé des initiatives importantes telles que la création de la Banque Terminologique Publique Basque et la constitution de la Commission de Terminologie, qui vient d'approuver le "Plan d'Action 2003-2004".

**Mots clés:** Priorités.

Coordination. Critères. Termes. Suivi.



---

1. **Sarrera.** 2. **Terminologia-lana antolatu, koordinatu eta bideratzeko premia:** 2.1. 2001, Terminologia Mintegia. 2.2. 2001, EUSKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoa sortzea. 2.3. 2002, Terminologia Batzordea sortzea. 2.4. 2003, Argitalpenak. 3. **Terminologia Batzordearen egitekoak eta "2003-2005eko jarduketa-plana":** 3.1. Terminologia-alorrean dauden lehen-tasunak finkatzea. 3.2. Lan-proposamenak egitea eta urteko jarduera-planean jasotzea. 3.3. Terminologia-lanerako irizpideak finkatzea. 3.4. Termino bat baino gehiago dagoenean termino hobetsia proposatzea. 3.5. Landutako terminologia-lanei onspena ematea. 3.6. Finkatutako terminologia zabaltzeko bideak proposatzea eta terminologia zabaltzea. 3.7. Onetsitako terminologiaren erabilera gomendatzea. 4. **Ondorioak eta erronkak.**

---

*Une langue dont les domaines d'utilisation sont restreints, ou se restreignent peu à peu, à cause de la concurrence d'une autre langue qui s'accapare les domaines les plus prestigieux perd de sa vitalité, s'appauvrit, se détériore, se folklorise. À terme, elle disparaît ou se créolise. (P. Vachon-L'heureux: 1997)<sup>1</sup>*

## 1. Sarrera

Artikulu honen helburua, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak abian jarritako terminologia-plangintzaren berri ematea da. Plangintzaren fruituak oso garrantzitsuak izango dira, zalantzarik gabe, espezializazio-eremu guztietako adituentzat, kontuan izanda terminologia-lana hizkuntzalariek eta espezialitate-eremuetako adituek elkarrekin egin behar dutela eta komunikazioa erraztea duela helburu. Terminologia-normalizazioa, beraz, ezin da aurrera eraman eremu berezitueta adituekin kontatu gabe, azken finean beraiek izango baitira terminologiaren erabiltzaileak.

Zuzenbide arloari dagokionez, denok dakigu berezitasun propioak dituela eta, hori dela eta, tratamendu berezia eskatzen duela. Terminologia Batzordeak lan egingo du arlo horretako terminologia ere normalizatzeko, zabaltzeko eta erabiltzaileei gomendatzeko. Zentzu horretan, ezinbestekoa izango da Batzordearentzat eremu

horretako adituekin lankidetzat estuan aritzea. Esaterako, lehenengo lana izango da Batzordeak Zuzenbide arlorako proposatuko dituen normalizazio-irizpideak adituek aztertzea, horien gainean ekarpenak egitea eta ontzat ematea. Artikulu honetan zehar ikusiko denez, lankidetzat etengabea izango da. Orain, plangintzaren ikuspegi orokorra eman nahi nuke.

## 2. Terminologia-lana antolatu, koordinatu eta bideratzeko premia

Euskararen Aholku Batzordeak eginiko, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak onartu eta Eusko Legebiltzarrak 99ko abenduaren 10ean sendetsitako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak (EBPN) VI. atalean finkatzen ditu euskarak datozen hamar urteetan izango dituen erronkak. Erronka horiek hiru mailatan berezita agertzen dira: helburu nagusia, helburu estrategikoak eta helburu zehatzak zein proposamen-egitasmoak. Helburu zehatzen artean, VI.3.3.a atalean "Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea" azaltzen da; besteak beste, honako hau agintzen du Planak horri dagokionez: "Hiztegi Batua amaitu eta argitaratu. Terminologia-lanaren plangintza egin datozen urteotarako".

Horren ildotik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Planak agindutakoa gauzatzeko<sup>2</sup>, beharrezkotzat jo zuen datozen urteetan egingo den terminologia-lana antolatu, koordinatu eta kudeatzea. Izan ere, terminologiaren garrantziaz jabeturik, terminologia-plangintza duten herrialdeetan, herri-aginteak izan dira horren bultzatzaile, oso garrantzitsua baita hizkuntza-komunitate batean erabili behar den terminologia (eremu berezitueta terminologia edo teknolektoak) erakunde ofizial batek sustatua eta gomendatua izatea<sup>3</sup>.

Hori horrela, hauek dira Euskara Biziberritzeko Plana onartu zenetik terminologia-alorrean Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egindakoak:

### 2.1. 2001, Terminologia Mintegia

Quebec-eko Gobernuko *Office de la Langue Française*-rekin (OLF) batera, Terminologia Mintegia egin zen Miñaoko Parke

- 
1. Itzulpena: "Hizkuntza batek, erabilera-eremua mugatua duenean, edo beste hizkuntza bat pixkanaka-pixkanaka alor nagusien jabe egiten ari delako, murrizten ari denean, galdu egiten du bere bizitasuna, pobretu egiten da, hondatu, folklorizatu. Eta, azkenean, desagertu egiten da, kreolera bilakatzen da".
  2. Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duen otsailaren 5eko 34/2002 Dekretuaren 16.d) artikuluan ezarritakoaren arabera, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari dagokio euskararen corpusa estandarizatzea eta modernizatzea.
  3. *Dans une perspective d'aménagement linguistique, l'officialisation linguistique peut être définie comme une stratégie d'intervention linguistique par laquelle un organisme mandaté par l'État se prononce officiellement sur des usages linguistiques de manière à contribuer à la maîtrise, au développement et à l'implantation de la langue que l'État veut promouvoir et retenir comme langue officielle.* (OLF, Carole Verreault: 2001). Eta definizio hori horrela osatzen da: *L'institution linguistique officielle doit demeurer un point de convergence et de référence pour les locuteurs provenant de différents milieux qui cherchent, pour les problèmes linguistiques difficiles à résoudre ou litigieux, à s'appuyer sur une autorité.* (OLF, Carole Verreault: 2001)

Teknologikoan (Arabian) 2001eko otsailaren 27an eta 28an, eta martxoaren 1ean. Kataluniako eta Galiziako partaideak ere bertan izan ziren, gehi Euskal Herriko aditu-talde mugatua. Helburua OLFko esperientzia, lan-metodologia, normalizazio-irizpideak, lanabesak eta egindako produktuak gertutik ezagutzea izan zen, batetik, eta, bestetik, aipatutako erakundearekin lankidetzaz-lerroak zabaltzea. Office-ren terminologia-bankua, “le Grand Dictionnaire Terminologique”, ezagutzeko aukera izan genuen, frantseseko terminologiaren normalizazioan eragin handia duena, hain zuzen (www.granddictionnaire.com).

## 2.2. 2001, EUSKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoa sortzea

Administrazioak kudeatutako banku terminologiko publikoa sortzea oso pauso garrantzitsua izan da terminologia-lana antolatuz, koordinatuz eta kudeatzeko bidean. EUSKALTERM, UZEIK 1987an sortutakoa hain zuzen, da banku publikoaren oinarri, enpresa horrek eta beste hainbatek egindako lanak eta orain arte bateratutako terminologiak biltzen dituena. Hori horrela, egun, EUSKALTERM, Euskal Terminologia Banku Publikoa da eta Eusko Jaurlaritzarena da.

Administrazioaren ardurapekoa den terminologia-bankuak terminologia berezituaren erabilera bateratasunean eragin handia izatea nahi genuke (banku ofizial askoren antzera: Eurodicautom, Termium, GDT...). Izan ere, oso garrantzitsua da eremu berezituak adituek terminologia berbera erabiltzea, lanbide-komunikazioan bikoiztasunak eta anbiguotasunak saihesteko.

Terminologia Banku Publikoa izango da Eusko Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzio, kudeaketa eta hedapeneren muina. Bankuaren kontsulta doan eskaintzen da Interneten [www.euskadi.net/euskalterm](http://www.euskadi.net/euskalterm) helbidean eta metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera (Terminologia Batzordeak onartutakoak eta terminologia juridiko-administratiboari dagokionez, HAEE/IVAPek<sup>4</sup> erabakitakoaren arabera, hain zuzen) etengabe eguneratu eta aberastu egingo da.

Beraz, banku publikoaren bidez, Eusko Jaurlaritzak, hizkuntza-politikari dagokionez, erabiltzaile guztien jardura terminologikoa, hau da, eremu profesionalen terminologiaren erabilera, gidatu eta orientatu nahi du. Izan ere, ez da ahaztu behar terminoen erabilera ezartzeko eta finkatzeko behar bezalako zabalkundea ezinbestekoa dela, hau da, modu azkarrean eta fidagarrian egin behar

dela onartutako terminologiaren zabalkundea eta erabiltzaile estrategikoengana iritsarazi behar dela. Are gehiago, zabaldutako terminologiari erabiltzaileek egingo dizkioten oharrak eta ekarpenak sistematizatuz bakarrik izango da posible erabiltzaileen beharrei egoki erantzutea. Hortaz, egun, onartutako terminologia zabaltzeko modurik eraginkorrena terminologia-bankua da.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak –azken honek terminologia juridiko-administratiboari dagokionez– finantzatzen dute EUSKALTERM. Helburu horretarako, bi erakunde horiek lankidetzaz-hitzarmena izenpetu zuten 2001eko urriaren 2an.

Aurrerantzean EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa sortzaile desberdinek egindako terminologia-lanak jasoko ditu, betiere, Terminologia Batzordeak erabilitako metodologia eta aplikatutako irizpideak ontzat emanez gero eta lan horiei onespina eman ondoren; fitxaren jatorria beti aipatuko da bertan.

## 2.3. 2002, Terminologia Batzordea sortzea

Terminologia-lana dela eta, aurreko urteotan Eusko Jaurlaritzak hainbat batzorde antolatu zuten egindako lanetan bateratasuna eta kontsentsua bultzatu nahian; batzorde horien lanaren fruitu izan ziren *Errenta-aitorpenerako inprimakiak*, *Euskal Herriko Herri Erakundearen Barne Errotulazioa*, *Bide Seinaleak* eta *Nekazaritza Hiztegia*, esaterako. Hala ere, behin baino gehiagotan aipatu izan da terminologiari buruz egindako biltzarretan, euskarazko terminologiari dagokionez, arlo horretan erabakiak hartuko lituzkeen batzorde bat sortzeko premia: lehenengo aldiz 1989an Terminologiari buruzko Jardunaldietan, eta azken aldian, 1997an, Donostian egindako Nazioarteko Terminologia Biltzarrean.

Batzorde horren figura beste hizkuntza-komunitate batzuetan aspaldi sortu zen (Katalunian “Consell Supervisor”) eta, esaterako, Quebecoko Gobernuak argitaratutako *Vocabulaire systématique de la terminologie* (1990) glosarioan honela definitzen da:

**commission de terminologie:** commission dont les membres sont nommés par un organisme officiel et qui a pour fonction de mener des études terminologiques et de donner des avis quant à la recommandation ou à la normalisation de termes dans un ou plusieurs domaines<sup>5</sup>.

4. Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala arautzen duen otsailaren 29ko 38/2000 Dekretuan bigarren artikuluan ezarrita dagoenari jarraiki, Itzulpen Zerbitzu Ofizialari dagokio euskarazko administrazio-hizkeraren nahiz lege- eta administrazio-terminologiaren batasuna, normalizazioa eta garapena bultzatzea.  
5. Itzulpena: “Terminologia Batzordea: Terminologia-batzordeko kideak erakunde ofizial batek izendatzen ditu, eta batzorde horren eginkizuna azterketa terminologikoak egitea da, bai eta erabileremu batean zein gehiagotan terminoak gomendatzeko edo normalizatzeko irizpideak ematea ere”.

Hori horrela, Eusko Jaurlaritzak Terminologia Batzordea sortu zuen Euskararen Aholku Batzordearen baitan (179/2002 Dekretua, uztailaren 16koa, 2002ko abuztuaren 7an EHAA argitaratua, 148 zk.). Batzorde-atal berezi gisa eratu zen kontuan izanda, batetik, terminologia normalizatzeko lanen izaera eta berezitasuna eta, bestetik, terminologia-lanetan erakunde publikoek zein pribatuek dihardutela.

### 2.3.1. Terminologia Batzordearen osaera

- a) Lehendakaria: Hizkuntza Politikarako sailburuordea
- b) Lehendakariordea: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria
- c) Idazkaria: Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoko idazkaria
- d) Ondorengo erakunde eta organismoek proposatuta izendatuko diren bokalak:
  - EAEko Administrazioari ordezkariek:
    - Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria
    - HAEko ordezkaria
    - Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Euskara Zerbitzuko ordezkaria
  - EAEko Administrazioaz kanpoko ordezkariek:
    - Euskaltzaindiko ordezkaria
    - UZEIko ordezkaria
    - Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuko ordezkaria
- e) Gehienez ere beste 6 bokal, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak izendatuak terminologian eta euskararen aditu diren artetik. Izendapen honetarako, euskararen hizkuntza-komunitatearen lurraldeetako ordezkariek izateari ere begiratuko zaio.
- f) Lantzen den terminologia-eremu jakinaren arabera, beste aditu batzuk ere izenda ditzake Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, batzordeko kideen lanaren lagungarri. Lana amaitu arteko izendapena izango dute kide hauek.

### 2.3.2. Batzordearen egitekoak

- a) Terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea.
- b) Lan-proposamenak egitea eta urteko jarduera-planetan jasotzea.
- c) Terminologia-lanerako irizpideak ematea.

- d) Termino bat baino gehiago dagoenean termino hobetsia proposatzea.
- e) Landutako terminologia-lanei onespina ematea.
- f) Finkatutako terminologia zabaltzeko bideak proposatzea eta terminologia zabaltzea.
- g) Onetsitako terminologiaren erabilera gomendatzea.
- h) Batzordearen ekintzen urteko oroitza egitea eta Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde-atal Iraunkorrari aurkeztea, Euskararen Aholku Batzordearen urteko oroitza sartzeko.
- i) Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoak terminologiaren arloan eska diezazkiokkeen oinarriko azterketak egitea.

## 2.4. 2003ko argitalpenak

Bi liburu argitaratu berri ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, terminologia-lana egin nahi duenarentzako erreferentzia izango direnak:

a) *Terminologia-lanaren metodologiako eskuliburua*, Eusko Jaurlaritzak, Argitalpen Zerbitzua, 2002



Terminologia-lana egiteko kontuan hartu beharreko jardute-urratsak eta gomendio praktikoak azaltzen dira liburu horretan. Argitalpenaren helburua da eremu edo azpiero jakinako terminologiaren azterketa sistematikoan aplikatu beharreko metodologia azaltzea.

b) *Terminologia Hiztegia*, Eusko Jaurlaritzak, Argitalpen Zerbitzua, 2002

Terminologiagintzaren kontzeptuak eta izendapenak, hau da, terminoak, definitzen ditu hiztegi horrek. Horretaz gain, gaztelaniako, frantseseko eta ingelesko baliokideak ematen ditu.

## 3. Terminologia Batzordearen egitekoak eta "2003-2005eko jarduketa-plana"

Terminologia Batzordeko kideen izendapenak argitaratu ondoren (EHAA, 65 zk., 2003ko apirilaren 1ekoa), Batzordea, formalki, 2003ko

apirilaren 1ean eratu zen egin zuen lehenengo bileran. Honez gero, bi bilera egin ditu Batzordeak, eta azkenengoan "2003-2005" jarduketaren plana" onartu du, bai eta Batzordearen lanmetodologia ere.

Batzordeak ez du zuzenean terminologia-lan sistematikorik egingo, hau da, glosario terminologikorik. Bere egitekoa, bereziki, *normalizazio-lana* egitea izango da, eta horrek dakarren guztia. Terminologia Batzordea terminologia-alorrean erabakiak hartzeko ahalmena duen entitatea izanik, EUSKALTERMEN bidez zein beste bideren bat erabiliz zabalduko den terminologia Terminologia Batzordearen ponderazio-marka eramango du<sup>6</sup> eta, horrela, erabiltzaileek jakingo dute zein den termino gomendatua.

Hori horrela, Batzordeak agindutako lan terminologikoak enkarguz egingo dira, eta lanen bat hartzen duen enpresak edo pertsonak Batzordearen jarraibideak hartu behar izango ditu kontuan lan-metodologiari zein aplikatu beharreko irizpideei dagokienez.

Bestalde, euskaraz egiten diren terminologia-lanen *koordinazio-gune* izango da Terminologia Batzordea, hau da, Batzordeak abian dauden lanen berri izan behar du, hain zuzen ere, lehenetsunak markatzeko orduan kontuan izateko eta bikoiztasunik ez gertatzeko.

Ikus ditzagun banan-banan Dekretuak Terminologia Batzordeari ezartzen dizkion egitekoak, eta honez gero abian direnak:

### 3.1. Terminologia-alorrean dauden lehenetsunak finkatzea

Teknolektoetan edo espezialitateko hizkeretan euskaraz egin beharreko lanak, dauden hutsuneak, aztertu beharreko erabileremuak eta horien artean dauden premiak eta lehenetsunak detektatu behar ditu Batzordeak. 2003-2005 epeari dagokionez, honako hauek finkatu ditu: "*irakaskuntzan –bereziki lanbide-heziketan eta unibertsitate-mailan, gero enpresa-munduan jarraipena izango baitute– erabili beharreko terminologia aztertzea, finkatzea eta normalizatzea bai eta teknologia berriekin zer ikusia duen terminologia ere; izan ere, benetako erabiltzaile estrategikoak arlo horietan daude eta egongo dira. Oso interesgarria litzateke, baita ere, hizkuntza-paisaian agertzen den terminologia finkatzea eta nor-*

*malizatzea, hain zuzen ere, errepideetako erroto-luetakoa, toki publikoetako karteletakoa eta produktuen eta tresnen etiketetakoa, jatetxeen menuetakoa...*"

### 3.2. Lan-proposamenak egitea eta urteko jardueraren planean jasotzea

a) 2003ko ekitaldian honako lan hauek egingo dira:

- Merkataritza-alorra (ostalaritza): "**Jatetxe, taberna eta kafetegietako hiztegia**" (euskara, gaztelania eta frantsesa): alor horretako establezimenduen jabeentzako hiztegi erabilgarria, bereziki euskarazko menuak, kartak eta bezeroentzako mezuak prestatzeko. EUSKALTERMEN txertatzeaz batera, paperezko eta CD-ROM formatuetan zabaltzea interesgarria litzateke erabiltzaileei helarazteko.
- Fabrikazio mekanikoaren alorra: "**Zenbaki bidezko kontrola hiztegia**" (euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa): lanbide-heziketako eta unibertsitateetako irakasle nahiz ikasleentzako erabilgarriak, bai eta eremuko enpresentzat ere. EUSKALTERMEN txertatzeaz batera, paperezko eta CD-ROM formatuetan zabaltzea interesgarria litzateke erabiltzaileei helarazteko.
- Informatika-alorra: "**Bulegotikako hiztegia**" (testu-tratamendua, dokumentuak trukatzeko...), hiztegi elea-niztuna (euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa): lanbide-heziketako eta unibertsitateetako irakasle zein ikasleentzako erabilgarria, bai eta eremuko enpresa publiko zein pribatuentzat ere. EUSKALTERMEN txertatzeaz batera, paperezko eta CD-ROM formatuetan zabaltzea interesgarria litzateke erabiltzaileei helarazteko.
- "**Laburtzapenen hiztegia**" (laburdurak, siglak, akronimoak, ikurrak eguneratu eta osatu, egun, EUSKALTERMEN daudenak).

6. Honako hauek onartu dira:

0. Baztertu beharreko terminoa (Terminologia Batzordeak onartzen ez duena)

1. Termino erabilia (aztertu gabea, baina besterik ezean erabiltzen dena)

2. Termino proposatua (adituek proposatua, baina oraindik T. Batzordeak normalizatu gabea)

3. Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

4. Termino normalizatu/gomendatua



EUSKALTERMen txertatuko dira kontsulta berezia antolatuz, eta, horretaz gain, paperezko formatuan ere argitaratuko da.

- **Zuzenbide-arloa: “Europar Batasunaren glosarioa”, “Toki-administrazioko oinarritzko hiztegia” eta “Lurralde-antolamenduaren glosarioa”.** Egitasmo horiek proiektu zabalagoen baitan daude kokatuta: oinarritzko testuen itzulpena edota eguneratzea, e.a. Zabalkundea web bidez egingo da edota paperean argitaratuko dira.
- b) 2004-2005 epealdirako, honako hauek aurreikusi dira:
- **Hizkuntza-paisaia:** ekonomia-jardueren terminologia (zapata-denda...), errepideetako errotoak (*desvío por obras, con lluvia conducir con precaución...*), garraio publikoetako mezurak, toki publikoetako kartelak eta errotoak... eta horien zabalkundea egin.
  - **Lanbide-heziketa** (enpresa-mundua): teknologia mekanikoa, trokela-keta, makina-erreminta...
  - **Informatika alorra:** teknologia berriak (hizkuntzen teknologiak...)
  - **Artea:** EAEn museoek hartu duten garrantzia dela eta.
  - **Zuzenbidea:** Herri-administrazioen kontratazioa: eskaera handia dago administrazio guztietatik. Horrela, Herri-administrazioen Kontratuen Legea itzuliko da, eta hainbat kontratazio-eredu landuko dira (pleguak, eta abar).
  - **Osasunaren Munduko Erakundeak (WHO)** ezintasun, ezgaitasun eta gaixotasunen inguruan proposatu duen kontzeptualizazio berria.
  - **Neologismoen hiztegia:** Terminologia Batzordeak normalizatutako terminoen hiztegitxoak, beharrezko informazioaz hornitua: erabileremua, definizioa, sinonimoak, beste hizkuntzetako balioakideak...

### 3.3. Terminologia-lanerako irizpideak finkatzea

Terminologia-normalizazioak erabaki sendoak eta zehatzak hartzen lagunduko duen aurretiko lana egitea eskatzen du (Cabré: 1992).

Aurrerantzean, euskaraz terminologia-lana egingo duen Terminologia Batzordearen laguntza izango du, lanaren fase guztietan edozein zalantza kontsultatzeko. Baina terminologia-lana behar bezala egiteko eta, bereziki, normalizazioari begira, nahitaezkoa da irizpideak finkatzea eta modu sistematikoan aplikatzea.

Horretaz gain, terminoak onartzeko, baztertzeko eta termino berriak (neonimoak) sortzeko eta, batez ere, erabakien koherentzia mantentzeko, beharrezkoa da Terminologia Batzordeak irizpide zehatzak eta ondo oinarritutakoak definitzea. Dokumentazio hori gure hizkuntzarako sortu beharra daukagu, eta terminologia-lana egiten duten guztien eskura jarri. Izan ere, hainbat urtetako eskarmentua dugu terminologia-lanean, baina oraindik ez dugu sortu horrelako dokumentaziorik. Beraz, azken urteotako esperientziatik abiatuta, irizpideak idatziz jarri behar ditugu.

Hainbat tokitako esperientzien berri izateko aukera izan dugu (Quebecoko Office de la Langue Française-koa eta Kataluniakoa), eta ikusi dugu irizpide finkoak eta zehatzak dituztela terminologiaren normalizazioan aplikatzeko. Urteetan zehar, normala denez, irizpideak aldatuz eta egokituz joaten dira, nozioak aldatu ahala eta erabiltzaileen beharrek hala eskatuta –esaten da 6 urtez behin berrikusi behar direla hartutako erabakiak–.

Terminologia Batzordeak lan horri ekin dio dagoeneko, eta 2003ko azarorako lehenengo dokumentua aurkeztea espero du. Batetik, *irizpide linguistikoak, terminologikoak eta soziolinguistikoak/pragmalinguistikoak* zehaztu behar ditu Batzordeak eta, bestetik, *neologiarako irizpideak*. Ondoren, hainbat irizpide orokor aipatuko ditut, edozein hizkuntzatan aplikagarri direnak eta Batzordearen lanaren abiapuntu izan direnak (irizpideak adibide argiz hornituko ditu Batzordeak).

#### 3.3.1. Irizpide linguistikoak

Oinarrian Hiztegi Batuan aplikatutako irizpideak jarriko dira, bereziki Hiztegi Batuan 2. itzulirako Euskaltzaindiak prestatutakoak. Horietaz gain, besteak beste, honako hauek:

- Terminoen hizkuntzaren sistema linguistikoaren (morfologikoaren eta fonologikoaren) araberakoak izan behar dira.

- Hizkuntzaren sisteman integratzeko gaitasuna izan behar dute, bai eta berengandik forma eratorriak eta horien sailak (famiak) sortzeko bidea eman ere.

- Hizkuntzaren diskurtsoan (sintaxian) integratzeko gaitasuna izan behar dute.

- Hizkuntzaren erabilera instituzionalaren kontrako forma desegokiak edo akastunak baztertu egin behar dira.

- Nahastea sortzen duten forma lehiakideak mugatu eta zehaztu egin behar dira, anbiguotasuna saihesteko.

Dena den, irizpide linguistikoak direla eta, azken hitza Euskaltzaindiarena da; beraz, zalan-tzak Euskaltzaindiari helaraziko zaizkio. Hala ere, hainbat kasutan gerta daiteke hizkuntza arruntera-ko hartutako erabakiek terminologian aplikatzeko orduan arazoak ematea eta, ondorioz, terminolo-giarako irizpidea gehiago zehaztu behar izatea.

### 3.3.2. Irizpide terminologikoak

- Espezialitate-eremu bakoitzaren (kimika, botanika...) izendapen-sistemak baditu bere arau propioak, eta arau horiei begiratu behar zaie eremu batean terminoak onartzeko orduan.

- Euskaraz erabilitako eta ondo funtzionatu duten ereduaren arabera terminoak onargarriak dira.

- Termino bat dokumentu askotan eta desberdinetan sarritan aurkitu izana bada arrazoia terminoa onartzeko (batasuneko irizpide orokorre-kin bat datorren neurrian).

- Termino bat normalizatzeko kontuan izan behar da dagokion kontzeptu- eta izendapen-sis-tema.

### 3.3.3. Irizpide soziolinguistikoak (eta pragmalinguistikoak)

- Terminoak erabiltzaileen artean ezarpen-maila altua badu, ez da aldatu behar, pisuzko arrazoirik ezean, eta termino berriak finkatzeko aukerarik ez balu.

- Termino bat onargarria da eremuko adi-tuek ontzat emanaz gero.

- Erabiltzaileen artean arrakasta izateko aukera gutxi duten terminoak arbuia egin behar dira.

- Konnotazio negatiboak dituzten terminoak baztertu egin behar dira.

- Terminoak ikasteko eta erabiltzeko erra-zak izan behar dira.

- Erreferentzia-hizkuntzak eta erreferentzia-kulturak bi izanik (gaztelania eta frantsesa), erabile-remuaren arabera, bi eremu geografikoetan arrakasta izateko moduko terminoak finkatuko dira.

Oro har, kontuan izan behar da hizkuntza-komunitateko erabiltzaileen jarrera, zeren eta komunitatea izango baita terminoak onartu edo baztertuko dituen.

**Neologia-sorkuntzari** dagokionez, euska-rak, beste hizkuntzek bezala, baditu termino berriak sortzeko bideak: eratorpena, hitz-elkarke-ta, eraikuntza sintagmatikoa, laburtzapena (siglak, akronimoak, laburdurak eta sinboloak), zabalkun-tza semantikoa, mugapen semantikoa, berrezar-pen lexikala, mailegua eta kalkoa. Definizioa alde batera utzirik<sup>7</sup>, esan behar da baliabide horien inguruan, azken urteotan, azterlan asko egin dire-la (Euskaltzaindiak, Unibertsitateak eta bestek) eta, hain zuzen ere, horietan oinarrituta, termino-logia-lanean aplikatzeko honako hauek aztertu eta finkatu behar direla:

a) **Eratorketa** (euskaraz oso baliabide emankorra): aurrizkien –euskarak gutxi izanda, azken honetan erdaretatik hartu izan dira– eta atzizkien erabilera zehatza eta bereiztua.

b) **Hitz-elkarketa** (hau ere oso erabilia): baliabide horren mugak, erdaren adjektibo errefe-rentzialak.

c) **Maileguak eta kalkoak**: Euskaltzaindiak 1986an emandako arauak (*Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak*) gehi Hiztegi Batuko 2. itzulirako emandakoak oinarri harturik, horien gaineko politika<sup>8</sup> (Quebecoko *Énoncé d'une politique relative à l'emprunt de formes lin-guistiques étrangères*-en antzera) definitu behar da. Horretarako, besteak beste, honako hauek fin-katu behar ditu politika horrek:

- **Maileguen politikaren printzipio orokorrak**, kasurako:

· Arauak eman behar dira erabaki ahal izateko noiz onartu edo noiz baztertu mailegu bat, baina, aldi berean, mailegua ordeztzeko proposamenak egin behar dira, hiz-kuntzaren autonomia sustatze aldera.

· Mailegu-politika era desberdinean aplika daiteke hizkuntza estanda-rraan eta teknolektoetan.

· Mailegua eta kalkoa erabili behar-ko liriteke bakar-bakarrrik euska-raz izendapenik ez duten errealtateak izendatzeko.

7. Ikus *Terminologia-lanaren metodologiako eskuliburua*, Eusko Jaurlaritzak, Argitalpen Zerbitzua, 2002.

8. Katalanaren kasuan, Termcat-eko Consell Supervisor-ek hainbat dokumentu du horien inguruan: *Manlleus i calcs lingüístics en els treballs de terminologia catalana*; *Formació del plural dels manlleus*; *Guia d'establiment de criteris per a la denominación catalana d'animals* eta *Formació de termes amb elements cultes*.

- Mailegua eta kalkoa errealitate berriak izendatzeko baliabideak dira; dena den beren erabilera ez da sustatu behar, hizkuntzak dituen bestelako baliabideen (eratorpena, elkarketa, zabalkuntza semantikoa eta abarren) kaltetan.
  - Mailegua erraz txertatu behar da hizkuntzaren egitura morfologikoan, sintaktikoan eta fonologikoan; gainera emankorra izan behar da, hau da eratorpenerako eta elkar-ketarako bidea eman behar du.
  - Mailegu bat edo kalko bat onartzeko edo arbuiatzeko, berau osatzen duten hitzak edo elementuak hartuko dira aintzakotzat. Printzipioz, mailegu sintaktikoak eta fonetikoak baztertu beharko lirateke.
  - Mailegu bat onartzeko edo baztertzeko, kontuan izan behar dira hizkuntzaren murrizketak (Zuzenbide arloa, esaterako), hizkuntza-komunitatearen ezaugarri soziolinguistikoak eta nazioarteko komunikazio-beharrak.
  - Mailegu bat edo kalko bat onartzeko edo arbuiatzeko, hizkuntza arruntaren erabilerari erreparatu behar zaio, hau da, ikusi behar da mailegu edo kalko hori zein neurritan dagoen zabalduz eta, ondorioz, hizkuntzan txertaturik dagoen eta noiztik.
- **Maileguak onartzeko eta hizkuntzan txertatzeko irizpideak:**  
Euskaltzaindiak Hiztegi Batuaren 2. itzulirako honi buruz finkatutakoez gain, honako hauek:
- Hizkuntzaren hutsunea betetzera datozen maileguak, euskaratik sortutako neologismo baten bidez ordeztarik ez badago.
  - Hizkuntzaren sistema ortografikoan eta fonetikoan ondo integrazten diren maileguak.
  - Hizkuntzaren izaerara/formara erraz egokitzen direnak.
  - Latinetik eta grekeratik sortutakoak direnak, nazioartekoak badira.
  - Isolaturik hartutako maileguak, hau da, mailegatutako hizkuntzan eratorririk ez dutenak, horrek ez
- baitakar eremu semantikoa aldarazteko arriskurik.
- Hizkuntza arruntean txertaturik dauden maileguak eta emankorrak izan direnak, hau da, eratorriak edo esanahi desberdinak sortarazi dituztenak.
  - Mailegu zaharrak edo hizkuntza arruntean oso hedaturik daudenak.
  - Espezialitateko hizkuntzetan txertaturik dauden maileguak eta eratorriak eman dituztenak.
  - Espezialite-eremu baten barruan polisemia ezabatzea helburu duten maileguak.
  - Horretaz gain, mailegua onartzen den kasuetan, hizkuntzan nola txertatu finkatu beharko da, hau da, grafia egokituta edo egokitu gabe. Hainbat kasutan ere, nola ahoskatu finkatu beharko da, bereziki ingelesetik zuzenean hartutakoetan.
- **Maileguak baztertzeko irizpideak:**
- Hizkuntza arruntean erabilitako maileguak, baina hizkuntza arruntako formei alferreko lehia egiten dietenak.
  - Espezialitateko eremuetan erabiltzen diren euskarazko terminoen zatitza alferreko lehia diren terminoak.
  - Integrazio ortografiko eta fonetiko zaila duten maileguak, bai eta homografoak eta homofonoak sortaraz ditzaketanak.
  - Mailegu berriak, euskarazko neologismoek erraz ordeztu ditzaketanak.
  - Atzetik kanpoko forma gehiago dakarten maileguak eta, ondorioz, eremu semantikoko lexiko-sorkuntza eragozten dutenak.
- **Inolako esku-hartzerik behar ez duten maileguak:**
- Atzerriko beste kultura bateko errealitatea izendatzen duten maileguak.
  - Euskara arruntean txertatutako maileguak, argitaratutako hiztegi gehienetan agertzen direnak.



- Hizkuntzan aspaldian txertatutako maileguak, kultura-errealitate zehatzak izendatzen dituztenak.
- Pasatzen diren modek ekarritako maileguak.

Esan bezala, Terminologia Batzordeak finkatutako irizpideak modu sistematikoan aplikatu beharko dira terminologia-lanean, metodologia zorrotz baten arabera, hau da, normalizatzailen subjektibotasunari ahalik eta leku txikiena utzirik. Hala ere, erabaki gabeko arazoak “*normalizazio-txostenetan*” jaso beharko dira, hobeto aztertzeke, arazoak ematen dituen terminoaren inguruko ahalik eta informazio gehien biltzeko, eta aldeko zein kontrako argudioak ondo islatzeko. Terminologia Batzordeak normalizazio-txostenaren eredu finkatuko du. Halaber, Terminologia Batzordea euskarazko terminologian dauden *arazoen inbentarioa* egiten hasiko da aurten, hain zuzen ere, denboran zehar osatuz joango dena.

Dena den, irizpideak beti ez dira berdin aplikatuko erabileremu guztietan. Denok dakigu terminologia askotan oso berezitua izaten dela, eta eremuko adituek bakarrik erabiltzen dutela. Baina badaude beste eremu batzuk hizkuntza arruntarekin harreman estua dutenak eta, ondorioz, hiztun arruntek maiz erabiltzen dute eremu horietako terminologia. Termino horiek, denboraz, hizkuntza arruntetan txertatzen dira eta hiztegi arruntek jasotzen dituzte. Horietako asko Hiztegi Batuak bere 2. itzulian jasoko ditu eta, hortaz, irizpideak finkatuko ditu.

Hori horrela, irizpideak aplikatzeko orduan, oso garrantzitsua litzateke, nire ustez, *erabilere-muetako terminologia maila desberdinetan sailkatzea*:

- **Zientzia eta teknologietako terminologia**, nazioartean oso antzekoa dena: informatika, elektronikak, industriaren mekanika, bioteknologia...

- **Gure terminologia tradizionala** (arrantza, nekazaritza, abeltzaintza, basogintza...), ondoko erdarekin bat ez datorrena eta, hein batean, hizkuntzaren altxorra izanik, mantendu eta baloratu beharko litzatekeena.

- **Hizkuntza arruntetik ateratako terminologia**: elikagaiak, jantziak, etxebizitza.

- **Maileguak eta maileguekin batera** izendatzen duten errealitatea dela eta, **modu masibean sartzen den terminologia**, adibidez elikagaien eremuan (jatetxeetako menuak, kasu).

- Azkenik, **Zuzenbide arloa** geldituko litzateke, tratamendu eta irizpide bereziak behar dituenak, euskararen kasuan behinik behin, gaztelaniarekiko eta frantsesarekiko morrontzarengatik, hain zuzen (*servitude*).<sup>9</sup>

Quebecen, esaterako, jarrera internazionalista izatetik bertako frantsesa (*québecismes*) sus-tatzera pasa dira, hori baita diskurtso sozialean erabiltzen dena eta jendeak baloratzen duena. Hori dela eta, *québecismes*-ei buruzko politika finkatua dute.

Irizpideak argi eta garbi definitu eta finkatu, terminoak normalizatu eta gomendatu eta gero, batzuek ez dute arrakastarik izango erabiltzaileen artean eta, hortaz, erabakiak aldatu egin beharko dira.



### 3.4. Termino bat baino gehiago dagoenean termino hobetsia proposatzea

Kasu asko dago, baina nik hiru adibide aipatuko ditut:

- *Toki-administrazio* eta *administrazio lokal* (hitz-elkarketa/adjektibo erreferentziala) formen tankerakoak.

- *Hitzarmen marko* eta *esparru-hitzarmen* bezalakoak. Horrelakoetan, nik uste proposamen bakarra beharko genukeela. Bi proposamen dagoenean (beste kasu bat: mailegua eta euskarazko forma, biak), aldi baterako biak uztea ondo dago, betiere argi eta garbi utzirik zein den gomendatutakoa, baina, denboraz, fitxa bakarra utzi beharko litzatekeela uste dut.

- Sinonimo gehiegi dagoenean, ad.: ingelesko *sustainable (sustainability)*-ren baliokideak euskaraz: *mantengarri, jasangarri, iraunkor, eusgarri, eramangarri*. Kasu horretan, normalizazioaren eta adostasunaren beharra begi bistakoa da, bestela erabiltzaileek ez dute konfiantza handirik izango terminologia-lana egiten dutenengan. Horrelako informazio nahasia eman ez da handituko erabiltzaileen segurtasun terminologikoa.

Jakina, aukeraketa ondo arrazoitu eta oinarritu beharko da kasu guztietan; hortik irizpide argiak finkatzeko premia.

9. Arlo horren azterketa sakona egin zuen Antton Elosegik bere doktore-tesian: *Zuzenbideko Euskal Hizkera Berezia, Lege-corpus itzuli bateko terminologiaren azterketa linguistikoa eta terminologikoa*, EHU, 2002ko apirila.

### 3.5. Landutako terminologia-lanei onespena ematea

Terminologia Batzordearen onespena izango da terminologia-lanaren kalitatea bermatuko duena; batetik, behar bezalako metodologia eta finkatutako irizpideak ondo aplikatu direla erakutsiko du, eta, bestetik, kontsentsuaren ziurtapenaren adierazle izango da (Batzordeak *ponderazio-markak*<sup>10</sup> erabiliko ditu).

### 3.6. Finkatutako terminologia zabaltzeko bideak proposatzea eta terminologia zabaltzea

Onetsitako terminoen hedapen azkarra eta egokia ezinbestekoa da erabiltzaileek terminologia hori erabiltzea eta onartzea nahi bada. Erabiltzaileek erabiltzeko, kalitateaz gain, oso inportantea da behar duten informazioa azkar aurkitzea, kontsulta egiteko modua eta informazioa aurkezteko modua errazak eta eraginkorrak izatea, informazio terminologikoa hizkuntza argian idatzita aurkitzea, eta erabiltzaileekiko interakzioa estua eta bizia ahalbidetzea; izan ere, erabiltzaileek ez badute termino bat onartzen, alferreko ahalgina da erakunde ofizial batetik termino hori sustatzea.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa izango da Batzordeak onetsitako terminologiaren hedapenaren funtsa. Bankua jarduera terminologikoaren abiapuntua eta helmuga izan behar da. Dena den, Batzordeak bestelako zabal-kunde-bideak ere proposa ditzake: paperezko nahiz CD formatuak, kartelak, foiletoak eta zabal-kunde masiboa egiteko erabiltzen diren bestelako formatuak.

### 3.7. Onetsitako terminologiaren erabilera gomendatzea

Orain arte euskaraz egin den terminologia-lana deskriptiboa izan da, eta ez arauemaile edo preskriptiboa<sup>11</sup>. Aurrerantzean ere horrelakoa izango da. Orain badugu terminologia-alorrean erabakiak hartzeko ahalmena duen entitateak, Terminologia Batzordea, eta bere helburua izango da onetsitako terminologiak eremuetako erabiltzaile estrategikoengana iritsaraztea eta erabiltzeko gomendio formala helaraztea. Gero, jakina, erabiltzaileen erreakzioa ezagutzea oso garrantzitsua izango da lanean aurrera egiteko. Hortaz, terminoen erabileraren jarraipena eta ebaluazioa egin beharko da, hau da, galdetegiak edota azter-

keta zehatzak eta puntualak egin beharko dira (momentu honetan EUSKALTERMen bat dugu jarrita):

- Terminologia-alorrean dauden premiak detektatzeko eta lehentasunak ezartzeko.
- Finkatutako terminologia behar bezala zabaltzeko, hau da, erabiltzaile estrategikoengana iritsarazteko, erabiltzeko gomendio formala egin ez.
- Gomendatutako terminologiaren aurrean terminologia-erabiltzaileek duten jarrera eta erreakzioak ezagutzeko.
- Erabiltzaileek gomendatutako terminoak onartzen ez dituztenean, beste termino batzuk proposatzeko.

## 4. Ondorioak eta erronkak

Hauk dira, nire ustez, euskaraz terminologiari dagokionez dituen erronkak:

- **Kalitatezko terminologia produzitzea:** Terminologia Batzordeak normalizazio-irizpideak aplikatu –hurbilketa soziolinguistikoa oso garrantzitsua da, hau da, erabiltzaileei egokitutako terminologia izan behar da– eta onetsi egingo du; beraz, terminologia hori kontsentsuduna izango da.
- **Onetsitako terminologia azkar, garaiz eta modu egokian hedatzea:** EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoaren bidez, bereziki. Bankuko edukiak etengabe berritu behar dira, benetako beharrei ahalik eta azkarren erantzuteko.
- **Terminologia ezartzea entitate ofizial baten (Terminologia Batzordearen) gomendioaren bidez.** Horren helburua da erabilera gidatzea, bateratasuna lortzeko, eta, horretarako, eremuko adituengana iritsi behar da, baina baita beste erabiltzaile askorengana ere: erakundeak, kazetariak, idazleak, irakasleak, ikasleak, argitaletxeak eta abarregana.

Azkenik, terminoen erabileraren **jarraipena eta ebaluazioa** egin behar da, bereziki diru publiko egindako terminologia bada. Egindako lanen kopurua eta dauden beharrak, batetik, eta, beste-

10. Ikus txosten honetako 2. puntua.

11. Quebecen atzera egiten ari dira bide horretan, eta salbuespen-kasuetan bakarrik erabiltzen dute. Oraingo bidea honakoa da: “*normaliser moins et recommander davantage, tout en affirmant le caractère officiel mais plus incitatif de la recommandation*” (itzulpena: “Gutxiago normalizatu, eta gomendio gehiago eman. Gomendio hauek ofizialak izango dira, baina, batez ere, sustatzaileak”), OLF, 2001.

tik, gomendatutako terminoen ezarpen-maila aztertu behar dira.

Arestian esan dudan bezala, frankofoniaren esparruan esperientzia luzea dute, eta azken honetan hartutako bidea "gomendatzea eta konbentzitzea" izan da: "*Il faut intervenir pour convaincre, pour inciter*" (OLF: 2001). "*Un nouveau concept de normalisation: établir les équivalences plus pratiques, plus réelles*" (J-L Rousseau: 2002).

Kalitatezko terminologia (ikuspuntu linguistiko, terminologiko eta nozionaletik fidagarria) eta terminologia normalizatua izatea oso garrantzitsua da, *corpus* hori oso baliotsua delako **Hizkuntzen Teknologien** erronkaren aurrean. Adituek esaten dutenez, horrelako teknologiak erabiltzen ez dituzten hizkuntzak denbora-epe labur batean ez dira existituko. Bestalde, teknologiek edukiak behar dituzte. Gainera, gogoratu behar da hizkuntzak ez direla hiltzen berez, baizik eta hitunek erabiltzeari utzi egiten diotelako. Gure hizkuntzaren etorkizunerako oso garrantzitsua izango da, zalantzarik gabe, neologismoak direla eta, finkatzen den politika.

## Bibliografia

- AUGER, P. "La Commission de terminologie de l'Office de la Langue Française et la normalisation terminologique", In: *Terminogramme*, 1984; 26-27 orr.
- AZKARATE, M. "Euskal terminologiaren egoeraz", In: *Nazioarteko Terminologia Biltzarra-Congreso Internacional de Terminología-Congrès International de Terminologie-International Congress on Terminology*, Donostia: HAEE-IVAP; UZEI, 1997.
- BOUTIN-QUESNEL, R. et al. *Vocabulaire systématique de la terminologie*, Québec: Gouvernement du Québec, 1990.
- CABRÉ, M.T. *La Terminología, teoría, metodología, aplicaciones*, Bartzelona: Antártida/Empúries, 1993.
- DÍAZ DE LEZANA, A. "Terminologia eta normalizazioa Euskal Autonomia Erkidegoan", In: *Espezialitateko hizkerak eta terminologia Jardunaldiak*. 2002ko iraila. EHU. Leioako Campusa. Euskara Institutuak antolatutarik. Argitaratu gabea, 2002.
- EUSKO JAURLARITZA. *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*, Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1999.
- EUSKO JAURLARITZA. *Terminologia-lanaren metodologiako eskuliburua*, Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2002.
- EUSKO JAURLARITZA, *Terminologia Hiztegia*, Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2002.
- TERMINOLOGIA BATZORDEA. *2003-2005 Terminologia Jarduketa-plana*, Argitaratu gabea, 2003.

- VACHON-L'HEUREUX, P. "Standardisation, normalisation et officialisation en aménagement terminologique au Québec", In: *Nazioarteko Terminologia Biltzarra- Congreso Internacional de Terminología-Congrès International de Terminologie-International Congress on Terminology*. Donostia: HAEE-IVAP; UZEI, 1997.
- VERREAULT, C. *Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Quebeceko Office de la Langue Françaisek egindako Terminologia Mintegia*, Miñao (Araba). Argitaratu gabeko apunteak, 2001.